

IZENA ETA IZANA

Herrien izenak aipatzen ditugularik, lehenengoz hasi behar de esaten herri guztiak izen bat baino gehiago dutela. Herri horrek bere burua izendatzeko erabiltzen duena, eta bestea, ondoko herriek jartzen diotena. Adibide adierazgarri bat: Eskimalek «inuit» dute izena beraien artean eta «gizona» esan nahi du; aldiz, ondoko tribuek eskimal izendatu zuten, «aragi jaleak» hain zuzen. Ikusten denez izenak badu bere baitan herri baten izaieran esanahi handia eta guri dagokigunez berdin hara bestela nondik «euskalduna» (euskara duena) eta Vascoa bestetik.

Honen barrutian mami asko dago, gehiago oraindik kontutan hartzen badugu irabazleek beti erabili izan dutela hizkuntza herri meneratuen nortasuna ezabatzeko eta horren galera adierazteko «Who wants power needs language» esaten du Knapper-ek (boterea nahi duenak, hizkuntza ezinbestekoa du). Hau da, gizarte baten «lehen» hizkuntza, klase nagusiaren hizkuntza izango da, hizkuntza ez baita soilik agintek banatzeko tresna, asimilatze, irensteko tresna baizik, ezen morroiak nagusiaren hizkuntza erabiltzen duenean orduan, eta bakarrik, nagusituko boterea.

Bide luze horretan, hizkuntzaren botereaz jabetzeko bide horretan, badaude ugari egoerak eta gaurko zientziak izendatu egin ditu horietako egoera batzuk. Egun guztion ahotan dugu esannahi zabaleko hitza: Diglosia, baina zer ote? Badago hizkuntzen garapena eta egoera aztertzen duen giza-zientzia eta honela dio diglosiaz: lurralde berean bi hizkuntz desorekatuen (ondo ulerturik) gatazka edo elkar bizitza. Hizkuntza batek ospea eta izena du, bestea aldiz gaizki ikusia eta etxean erabiltzeko da. Honek esan nahi du hizkuntza batek bestea jaten bukatuko duela, hau da, hizkuntza txikia edo gutxiengoren hizkuntza asimilatu egingo duela.

Eta orain ailegatzen gara muinera zeren berez ASI-MILAZIOA lortzea beti izan da herri gerlari baten nahia eta helburua. Lurraldea irabazi ondoren nortasuna irentsi behar da. Helburua ez da izango bi herrien arteko berdinketa, noski, baizik eta herri menperatuaren gizaki arteko lokarriak haustea. Horretarako bide bereziak eraikitzen ditu. Hasiko da esaten hizkuntzak ez duela balio, tresna eskasa dela eta ezin duela kultur aurreratuen adierazpideak erabili. Bigarren momentuan esandakoa sinestarazi behar zaio gizarteari benetan kontura dadin zein garrantzia duen hizkuntza «nagusiak», hizkuntza horretan bakarrik izango du ematerik aurrerapen sozialak, hau da, status sozial ezberdinak markatuko duen hizkuntza izango da, jerarkizazio prozesua eraikitzen duelarik, ezen badago esaterik bide batez, hizkuntzaz ernegatzen duen herriak, bere jatorria, bere sustraia eta bere kultura ukatzen duela.



Honek historian zehar adierazpide ugari ditu non herri askoren heriotza, hizkuntzaren heriotzatik datorren.

Eta zein da asimilazioaren aurkako egoera? ERRESISTENTZIA hain zuzen. Asimilazioa sakanatzailea den bitartean —helburua, gizabanako bakoitza bere talde naturaletik urruntzea bait da— erresistentzia integratzailea da eta, funtsean positiboa ezen ingurune naturalera itzultzen du gizakia, ezen zentzu morala itzultzen dio non taldeak bere balioa duen, osatzen duten unitateek adina gutxienik. Asimilazioa beldurra edo ezjakintasunetik sortzen bada, erresistentzia hauen aurkakoa da. Barne konbenzimenduaren garaipena, dignitatearen garaipena. Mendeetan zehar iraun duten herriek (1) (hara hor Islandesak). Honek ez digu harritu behar zeren, nahiz eta herri txikia izan, bere suntsipena suertatzen ez den bitartean, garaile izatera BEHARTUTA dago.

Gaurko honekin bukatzeko aipatutako bi jarrerak gure baitan bilatzea, non errezago uler dezagun. Izan ere Erdi Aroa Nafarroa asimilatzailea dugu eta bitartean Gipuzkoa eta Bizkaiko jaurerriak erresistentzia agertzen dute. Arrazoia nahi agerian dago eta badirudi nahiko nabaria dela Nafarroan emanikako garaipen politikoa arrotza suertatu zela euskal hiztunentzat, euskaldunentzat. Eta suertatutako egituraketa politikoa ez du eraketa carolingioa edo hispanovisigoticoa kopiatzen bakarrik, baizik eta hizkuntza ere —gaztelera eta occitanoa— eta honek ekartzen ditu guztiok dakizkigun ondorioak.

Ederki ageri da historian hizkuntzaren indarra herri baten nortasuna lantzeko, ederki agertzen den bezala hizkuntza gabeko herriak herri kolonizatuak direla, amore eman duten herriek.

(1) Eta azkenik zapaltzaileei makurtu gabe edo batalla bakar bat irabazi gabe garaileak atera diren herriak.

Tomas Zabaleta